

Munduko alde desberdinetara
bidali izan dute berriemaile.



Munduko alde desberdinetara
bidali izan dute berriemaile.



Nolakotasuna ez baizik kantitatea adierazi nahi denean,
ez da egokia *desberdin* izenondoa baliatzea, esaldia
nahasgarri izan daiteke eta.

Munduko *hainbat lekutara* bidali
izan dute berriemaile.



✚ Frantziako *hizkuntzak* aztertu beharra dago.

✚ Frantziako *hizkuntza guztiak* aztertu beharra dago.

■ # Frantziako hizkuntza *desberdinak* aztertu beharra dago. (Gazt. “las diferentes”)

✚ Europako *zenbait hizkuntza* aztertu dituzte.

■ # Europako hizkuntza *desberdinak* aztertu dituzte. (Gazt. “diferentes”)

✚ Poliglota da, *hainbat hizkuntza* dakizki eta.

■ # Poliglota da, hizkuntza *desberdinak* dakizki eta.



Baina nolakotasunen bati dagokion konparaketa eginez gero, egokia da “desberdin”:

- ✚ Euskara eta gaztelania hizkuntza *desberdinak* dira, sintaxiaren zein lexikoaren aldetik.



✚ Sistemak dakarzkigun *aukerak (aukera guztiak)* baliatu behar ditugu.

■ # Sistemak dakarzkigun aukera *desberdinak* baliatu behar ditugu.
(Gazt. “las diferentes”)

✚ Sistemak dakarzkigun *zenbait aukera* baliatuko ditugu.

■ # Sistemak dakarzkigun aukera *desberdinak* baliatuko ditugu.
(Gazt. “diferentes”)

Baina nolakotasunen bati dagokion konparaketa eginez gero:

✚ Sistemak dakarzkigun aukerak *desberdinak* dira jardunbideari dagokionez.

